



**EUSKALTEL SAK** (Euskaltel edo Sozietatea), Balore Merkatuaren 1988ko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 82. artikuluan aurreikusten dena betez, idatzi honen bidez, hau jakinarazten du:

### **INFORMAZIO GARRANTZITSUA**

Euskaltelen Administrazio Kontseiluak, gaurko bileran, erabaki du Javier Fernández Alonso jauna Sozietateko Administrazio Kontseiluko kide berri izendatzea, kooptazio bidez, kanpoko kontseilari ahaldun gisa. Izendapena Corporación Financiera Alba SAK proposatu du, zeina Euskalteleko akziodun esanguratsua baita.

Javier Fernández Alonso jauna bileran zegoen, eta onartu egin du izendapena.

Sozietatearen webgune korporatiboan ([www.euskaltel.com](http://www.euskaltel.com)) jaso eta argitaratu dira Javier Fernández Alonso jaunaren ezaugarri pertsonalei eta ibilbide profesionalari buruzko datuak.

Derion, 2015eko irailaren 30ean.

**EUSKALTEL SA**

**Francisco Javier Allende Arias**  
**Administrazio Kontseiluko idazkaria**